

Euskararen berri onak eta kultura klasikoaren transmisioa XVIII. mendean Euskal Herrian*

*(Euskararen berri onak and the transmission of classical
culture in the 18th century in the Basque Country)*

Villoslada, Iñaki

H.A.E.E. – Eusko Jaurlaritza. Duque de Wellington, 2
01010 Vitoria Gasteiz

Torregarai, Elena

Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia Miraconcha, 48.
20007 Donostia

BIBLID [1136-6834 (1998), 27; 53-59]

XVIII. mendean Euskararen Berri Onak, Aita Kardaberazek idatzitako euskal "erretorika" bat agertzen da. Liburuak, ideologikoki hizkuntzaren apologien barne dagoenak, funtsezko garrantzia dauka tradizio klasikoaren transmisioaren historian baita ere eragin garrantzitsua Euskal Kulturari. Liburuak adierazten du Eliza izan zela transmisio horretako tresna nagusia eta irakurri ondoren garbi gelditzen da elizgizonek beren hezkuntzan zehar ikasitako autore latindar eta greziar nagusien ereduari oinarritutako ikuspegia dela eskaintzen dena. Azken finean, Aita Kardaberazek, bere obraren bidez, euskarak kultur hizkuntza bihurtzeko hizkuntza klasikoaren eredu jarraitu behar zuela erakutsi nahi digu.

Giltz-Hitzak: XVIII. mendea. Erretorika. Kultura klasikoa.

En el siglo XVIII aparece Euskararen Berri Onak, una "retórica" vascongada escrita por el Padre Cardaveraz. La obra, inscrita ideológicamente en el elenco de apologías de la lengua, tiene un interés fundamental desde el punto de vista de la transmisión de la tradición clásica y su influencia en la cultura vasca. Por un lado, nos muestra que la Iglesia fue el instrumento principal de dicha transmisión y, por otro, que como consecuencia de ello, la visión del mundo clásico que nos aporta se basa en los modelos recreados por los principales autores latinos y griegos que los clérigos asimilaban durante su formación. Con esta base educativa y desde un postura apologética, el Padre Cardaveraz, a través de su obra, sostiene que la conversión del euskara en una lengua de cultura pasaba necesariamente por seguir el modelo de comportamiento de las lenguas clásicas.

Palabras Clave: Siglo XVIII. Retórica. Cultura clásica.

Au XVIIIème siècle paraît Euskararen Berri Onak, une rhétorique basque écrite par le Père Cardaveraz. Le livre, inscrit idéologiquement dans le cadre des apologies de la langue, a un intérêt fondamental du point de vue de la transmission de la tradition classique et de son influence dans la culture basque. D'un côté, il nous montre que l'Eglise fut le principal instrument de cette transmission et, de l'autre, il réaffirme que la vision du monde classique qu'il nous offre est fondé sur les modèles créés par les principaux auteurs latins et grecs, lesquels faisaient partie de la formation de la communauté ecclésiastique. Avec cet éducation et d'un point de vue apologétique, le Père Cardaveraz, à travers son oeuvre, soutient que l'euskara deviendrait une langue de culture si elle arrivait à suivre le modèle de comportement des langues classiques.

Mots Clés: XVIII siècle. Rhétorique. Culture classique.

* Komunikazio honetan erabilitako *Euskararen Berri Onaken* argitalpena Tolosan egin zen 1964. urtean. Hemen-dik aurrera obraren erreferentzia EBO izango da.

1761. urtean Aita Kardaberazen *Euskararen Berri Onak* liburua argitaratzen da¹. Izkribua, euskara kultur hizkuntza gisa garatu ahal izateko garrantzitsua da eta, horrez gain, funtsezko gertaera transmisio klasikoaren historian Euskal Herrian. Kalitatearen aldetik liburua nahikoa eskasa bada ere, K. Mitxelenaren iritziz "Retórica vascongada" izendatzen dutenak exajeratu hutsak ziren, obraren beraren agerpena esanguratsua da². Egia da, beste alde batetik, Mendebaldeko Europa osoan kultura klasikoaren inguruan eman diren liburuen artean antzekoak badaudela; baina, gehienetan, ingelesez, italieraz, frantsesez eta alemaneraz daude³. Euskaraz, berriz, *Euskararen Berri Onaken* presentzia xumea aurkez dezakegu. Izan ere, euskaraz dagoen bakarra da eta kalitatearen kontua alde batera utzita, bere garrantzia, komunikazio honetarako behintzat, XVIII. mendeko Euskal Herrian tradizio klasikoaren transmisioaren azterketarako tresna paregabea izatean datza.

Garai hartan kultura klasikoak hezkuntz programazioetan betetzen zuen funtsezko lekuak, eredu klasikoaren zabalkunderako eta onarpenerako laguntzen zuen. Gainera, Kardaberazek, apaiza zen aldetik, pribilejiozko harremanak zituen goi kulturarekin. Erlijiosoen hezkuntzan, grekerak eta, batez ere latinak zuten garrantziak idazle klasikoen ezagupena ezinbestekoa egiten zuen. Hori dela eta, gure idazlearen kasuan, heziketak eta eredu klasikoen ezagutzak, zalantzarik gabe, *Euskararen Berri Onaken* egitura eta helburua baldintzatzen dituzte. Erreferentzia klasikoen presentziak Kardaberazenean iturri klasikoen erabilpen legitimitzailea adierazten du; apaizak latinez eta grekerazko maximak euskarari buruzko bere ideia propioei indarra eta zentzua emateko erabiltzen ditu. Ikuspuntu honetatik, kultura klasikoa euskal kulturaren egituraketan oinarri bihurtzen da, euskara kultur hizkuntza bilakatzeko eredu bakarra bera baita. Ildo honetatik, oso adierazgarria da obra osoaren kapituluaren egikeran, ia guztietan, hasieran, lehenengo erreferentzia klasikoa izatea⁴. Era honetan, Kardaberazek, bere ideien azalpena aurreko iritzi klasiko baten gainean oinarritzen du edo, beste modu batean esanda, bere ikuspuntuaren erroa, euskararentzat ere, eredu klasikoetan sustraituta dago.

Kardaberazaren liburuan tradizio klasikoa bi modu ezberdinez erabiltzen da. Batetik erreferentzia zuzenak ditugu, idazle klasikoen obren edo *dictaen* aipamenak; bestetik, jesuitak hizkuntza klasikoen, batez ere latinaren, eta euskararen arteko konparaketa egiten du. Datozen lerroetan bi transmisio modu hauek aztertuko ditugu.

Lehenengo erabilpena eta trinkoena, aipamen zuzenak ditugu: autore bakoitzaren izena maximaren ondoan eta idazle ezberdinen zerrendak ere. Azken honek, bereziki, eskolako katalogoak gogorarazten ditu, gaur egun ere kultura klasikoaren transmisioaren izen nagusiak konideratzen direnak azaltzen baitira⁵. Guztien artean, ukaezina da Kardaberazentzat maisu

1 EBOren beste argitalpenak, Bilboko *Euskalza* aldizkarian 1897an eta Tolosan 1898an.

2 L. MICHELENA, *Historia de la literatura vasca*, Donostia, p. 105; J. DE URQUIJO, "Las obras del Padre Cardaberaz", *RIEV* 2, 1908, pp. 331-336.

3 J.A. HERNANDEZ GUERRERO, M.C. GARCIA TEJERA, *Historia breve de la Retórica*, Madrid 1994, pp.121-148; A. BENARD, "Les survivances de la rhétorique antique dans les traités de rhétorique du XVIII^e siècle", *Influence de la Grèce et de Rome sur l'Occident moderne, Caesarodonum XII, bis*, Paris 1977, pp. 312-318.

4 EBO, I; II, 1; III, 1: "...dio Quintilianok"; IV, 1: "Quintilianok diotenez..."; VII, 1: "Latinak honela..."; VIII, 1: "Quintilianok...dionez";

5 G.A. KENNEDY, "La retórica", *El legado de Roma*, W.A. LINTOTT ed. Londres 1994, pp. 247-268.

nagusia Marco Fabio Quintiliano, *rhetor* latinoa, izan zela, gehienetan berari erreferentzia egiten baitio⁶. Berarekin batera, idazle latindarren artean Cicero eta Plinio Gaztea azaltzen dira, hirurok Eloquentziaren Artean ospe handikoak. Greziarren artean, haren aholkuak latinera itzulita ezagutu arren, Isokrates da estimatuena. Esan beharra dago autore hauen obren komentariarik ez egoteak eta, Isokrates bera, esate baterako, latinez erabiltzeak Kardaberazren erreferentzia klasikoen jatorria frogatzen dutela. Badakigu Antzinitatean bertan hezkuntzaren sistema *exemplaen* laguntzaz bideratzen zela. *Exempla* hauek katalogo batzuetan biltzen ziren gazteen hezkuntzan erabiltzeko eta horrelaxe bihurtu ziren erretorikaren eskoletako tresna nagusia. Zerrenda hauetan azaltzen ziren aholkuak askotan idazle famatuen obretatik aterata zeuden. Adibidez, erretorikaren kasuan, lehenengo Cicero eta gero Quintiliano izan ziren mietsienak beren obra nagusiak ondo hitz egiteko arteari buruzkoak baitziren. Mendeen joan-etorrian, kasu askotan, jatorrizko idazleen irakurketa ahaztu eta, eskuarki, autore hauek bilduma horiei esker ezagutu ziren. *Euskararen Berri Onak*-en holako bilduma baten erabilpenaren zantzuak atzeman daitezke. Horrela ulertu behar da ondo idazteko eta ondo hitz egiteko erregelak adierazteko modua: Kardaberazek euskarari buruzko aholkuak sententzia klasiko batean oinarritzen ditu beti, *Isokratesek dio...*, *Cicerok dio...*, *Quintilianok dio...* Horrela transmitzen ditu elokuentziaren erregelak, berak ikasi zituen moduan, idazle klasikoen obretatik ateratako maxima ezberdinen bildumen bidez.

Egia da Cicero eta Quintiliano elokuentziaren autore nagusiak zirela eta horregatik Kardaberazren antzeko predikadoreen hezkuntzan nonahi azaldu beharrekoak izango zirela. Baina egia ere bada, erlijioosen heziketan ahaztezina zela Elizako doktoreen jakinduria; honela, *Euskararen Berri Onak*-en aipatzen dira Ignazio, PoliKarlo, Justino, Klemente, Tertuliano, Origenes, Zipriano, Ambrosio, Jeronimo eta Augustin, Laktanzio, Atanasio, Basilio, Gregorio Nazianzeno eta Krisostomo, idazle greziar eta latindarrak denak⁷. Guztiak garrantzitsuak dira Elizaren historiarako eta Teologiaren garapenerako. Denen artean deigarria da erretorikaren teoriko ospetsuen presentzia, Basilio eta Gregorio Nazianzeno adiskideena, adibidez. Azken honi garrantzia, batez ere, bere garaian oso *orator* famatua izanik ere, *Sermoiak* obrak eman zion, oratoria sakratuaren oinarria da eta. Kardaberazren ustez, predikazioa izatean, gauza askoren aurretik, interesatzen zizaitza, interes handiko maisua izango zen, dudarik gabe. Aipagarria da San Agustinen kasua ere, zeren eta *De ciuitate Dei* Ciceroren erreferentziaz beterik baitago. Horregatik ez da harritzekoa, *Euskararen Berri Onak* obran, jakintsu afrikarraren erabilpena Quintilianorekin batera ugariena izatea. Santuaren bidez, gure idazlea Ciceroren-gana hurbiltzen zen eta.

Tradizio klasikoaren bigarren erabilpena, konparaketa, oso interesgarria da Kardaberazren pentsamoldea ezagutzeko. Dena den, esan beharra dago oso gutxitan azaltzen dela, bizpahiru aldirik bakarrik. Kardaberazek euskara hizkuntza klasikoekin, grekera eta latinarekin, alderatzen du, hiruren arteko berdintasunak azpimarratuz, ez bakarrik itxuran baizik eta kultur tresna mailan ere. Horrela ikusiko dugu euskalkiak grekerazko dialektoekin parekatzen dituela⁸, edota latinari dagokionez, bere gramatikaren zortzi zatiak euskarak berak ere izan ditzakeela: izena, aditza, etab....⁹. Latinaren kasuan, Kardaberazek dioenez gazte euskaldu-

6 EBO, pp. 70-71, 76, 100, 101-102, 106-107. QUINTILIANO, *Inst. Orat.* 1, 6; 1, 7; 2, 15

7 *Ibid.*, p. 63.

8 *Ibid.*, p. 66.

9 *Ibid.*, pp. 89-90.

nei errezago egiten zaie latina gaztelera baino, euskararen antza handiagoa erakusten baitu¹⁰. Gauza bera gertatzen da hiru hizkuntzen kasuekin, hirurek erabiltzen dituzte eta¹¹. Parekatze honen asmo nagusia, gure ustez, euskararen balioa indartzea da, ez jatorriaren ikuspegitik, zeren eta Kardaberazek ongi asko ziurtatzen du euskaren nagusitasuna beste hizkuntzen gainean, baizik eta kultur hizkuntza gisa. Azken finean, Kardaberaz saiatzen da euskara jakinduria zabaltzeko tresna gisa finkatzen.

Eredu klasikoaren aukeraketarako, lehenengo eta behin, Kardaberaz heziketak eragi-na handia dauka. Badakigu apaizak Gramatika Donostian, Filosofia Iruñean, eta Zuzenbidea eta Teologia Valladoliden eta Palencian ikasi zituela¹². Loiolako Artxibategiko "P. Agustín de Cardaveraz, S.J." fondoan, hain zuzen, gai ezberdin hauetako apunteak aurki daitezke: Literatura, Filosofia, Teologia..., etab....¹³. Kardaberazek idatziak eta gordeak. Iturri beretik ere jakin dezakegu eskolako urteetatik eskuizkribuak gordetzen zituela eta, horrenbestez, ezagut dezakegu zernolako ikasketa-sistema erabili zen Kardaberaz heziketan. Lehen aipatutako *exempla* eta *dicta* ziren, aholkuak idazle klasikoen eta Elizako doktoreen sententziak zirelarik. Honek guztiak azalduko luke bere aipamen klasikoen berezitasuna; azken finean Kardaberazek transmititzen zuena berak ikasitakoa zen: lehenengo, latinezko *dictum*, gero honi buruzko komentarioa eta, ondoren, ideia propioen azalpena. Beraz, kasu gehienetan, esaldi latinoak pentsamenduaren ildoak taiutzen zuen, eredu klasikoaren transmisioa lortuz.

Kardaberazek ikasturte luzeen ondoren atera zuen ondorio nagusienetarikoa bat izan zen munduko gizon jakintsuenek latina eta grekera erabiltzen zituztela beren jakinduria zabaltzeko: "...antziñatik, orañ bezala, griego ta latiña beti estimatuenak izandu dira,..."¹⁴. Liburuan zehar argi eta garbi uzten du munduko ezagutza guztiak bi hizkuntza horietan idatzita daudela. Honek berebiziko itzala edukitzeko balio izan die, eta, ondorioz, ondo idazteko eta hitz egiteko erregela ugari dituzte, zeren eta prestijioko gauzak edo garrantzia duten gauzak kultura eta zientziarako ondo eta zuzentasunez azaldu behar dira¹⁵. Latinak eta grekerak kultur tresna maila lortzeak beren garapena ekarri du. Euskarak, berriz, ez du gizon jakintsurik eman, baina, hala ere, komunikatzeko hizkuntza gisa mantendu da¹⁶. Honek, Kardaberazek ustez, haren espezialitate frogatzen du, eta hizkuntza klasikoen garrantzia jakinduriaren transmisio-tresna izatea izan bada, euskararen berezitasuna, maila hau lortu ezinik, izaeran eta iraupenean datza. Beraz euskararen existentziak berak berezko baldintzak eskaintzen ditu kultur hizkuntza bihurtzeko.

Euskararen "naturaltasuna" erabiliko du abiapuntu gisa Kardaberazek euskara hizkuntza klasikoekin alderatzeko, eta, horrela, besteek nekez lortu dutena, euskarak besterik gabe erakusten du. Hala gertatzen da adibidez erretorika eta elokuentziarekin, Kardaberazek dio: "Ah

10 *Ibid.*, pp. 91-92.

11 *Ibid.*, p. 93.

12 L. VILLASANTE, *Historia de la literatura vasca*, Burgos 1979, pp. 145-146.

13 *Kardaberaz aitari omenaldia*, Donostia 1971, pp. 195-198.

14 *EBO*, p. 62, 64.

15 *Ibid.*, p. 63.

16 *Ibid.*, pp. 64-65. M. LEKUONA, "Euskararen Berri Onak irakurtzen", *Kardaberaz aitari omenaldia*, Donostia 1971, pp. 90-93.

*baña, dio norbaitek, euskarak, naiagatik, Latiñ edo Gaztelaniaren itzegiteko eleganzia, edo edertasun, ta Erretorika, edo Elokuentziarik berez eztu!*¹⁷; baina apaizaren ustez, euskarak badu erretorika, halako erretorika naturala. Falta zaiona, berezko doai hau *ars rhetorica* bihurtzea da, jakinduriaren transmisioan latinaren mailaraino helduko bada, behinik behin. Planteamentu honekin, Kardaberazek euskaldun askoren aurreiritziak baztertu nahi zituen, zeren eta hauek sarritan onartzen zuten latinak zeukan erretorika ederra ez zela euskaraz aurkitzen. Uste honen kontra, jesuita euskalduna Ciceroren ikuspuntu unibertsalaz baliatzen da, *orator* latinoarentzat erretorikaren erregelak egokiak dira hizkuntza guztietarako¹⁸. Beraz, euskarari Elokuentziaren erregelak falta zaizkio, besterik ez. Latinaren ereduaren aukeraketa, bi arrazoi nagusiengatik egiten da, lehenengoa, Kardaberazek ustez, hizkuntza honek erretorikaren trebetasunean maila gorena lortu duelako; eta bigarrena, latina Elizaren hizkuntza delako eta, beraz, sakratua eta egokiena fedea zabaltzeko.

Euskararen sendotze prozesua, latinarenaren antzera, eredu klasiko baten bidez proposatu zuen Aita Kardaberazek. Bere ustez, hizkuntza klasikoaren moduan, euskaraz jakinduria era dotorean transmititzeko behar-beharrezkoa zen Gramatika baten sorrera¹⁹. Euskarak hizkuntza hauek egindako bide berdina jarraitu behar zuen, Cicerok eta Quintilianok adierazten zuten bezala, bai grekera, bai latina hasieran traketsagoak ziren, baina denboraren poderioz ondo hitz egiteko eta idazteko arauak behar izan zituzten²⁰. Euskararen kasua XVIII. mendean, hizkuntza klasikoaren hasierakoa zen. Euskara oraindik "naturaltasunaren" aroan zegoenez, berezko elokuentziatik kultur elokuentzia batera aurrepausoa emateko gramatika baten beharra zeukan. Honek finkatuko zituen euskararen erretorikaren erregelak .

Antzinitatean Gramatika hezkuntzaren oinarri nagusienetariko bat zen. Gramatikari aitortutako garrantzi hau tradizio klasiko osoan zehar transmititu zen, Kardaberazek adibideak berak adierazten duen bezala, berak esaten baitu "(Gramatika)...*munduak ikusi duen mirari andi edo marabilla guztizkoetatik bat, dudarik gabe, Arte hau da*"²¹. Apaizaren hitzak ez dira hizkuntza klasikoaren ondrea intelektualerako bakarrik, baizik eta bere pentsamoldearen baieztapena. Gramatika latina eta grekeraren biziraupenaren zutabe izan den bezala, Arte honek euskararen iraupena bermatu behar du²². Ondo hitz egiteko eta ondo idazteko arauen bidez euskarazko irakaskuntza posible izango zen eta, horrela, gure hizkuntza jakinduria transmititzeko tresna egokia bilakatuko zen, eta hizkuntza klasikoekin gertatu den moduan euskararen jarraipena indartuko zen. Horixe zen, Gramatika baten sorrera proposatzean, Kardaberazek helburu nagusia.

Gramatika baten behararen konzeptua klasikoa bazen, halakoxea zen Gramatikaren behararen helburua ere. Horregatik, ez da harritzekoa, *Euskararen Berri Onak* - en lehenengo orrialdean Cicero, Plinio Gaztea eta Quintilianoren aipamenak aurkitzea, beraiek definitzen

17 *Ibid.*, pp. 98-99.

18 CICERON, *De Orat.* 3.

19 *EBO*, p. 90.

20 *Ibid.*, pp. 76-77.

21 *Ibid.*, p. 88.

22 *Ibid.*, pp. 73-74.

baitute obraren egitasmoa “*Eskola oriek, konseju handiaz, ta berariaz Erromak paratu zituen, gazte alperrak galdu, ta munduaren desonragarri izango ziranak, ondo azi, ta Erromaren onragarri izan zitezen.*”²³. Orduan, idazle klasikoak bezalaxe, Kardaberaz gaztediaren hezkuntzaz kezkatzen da eta, horretareko, eredu klasikoari egokiena deritzo. Hala eta guztiz ere, bere helburua ez da berdina, zeren eta apaizaren asmoa beste bat da: gaztediaren prestakuntza Jaungoikoa goratzeko, “...*umeak ondo azitzea nai degu: eta guzia, ez gureztat, baizik Jainkoaren gloriarako izan dedin*”²⁴. Horregatik, gramatikako liburuxka hau zuzenduta dago maisuei, konfesoreei eta, batez ere, predikatzailerei²⁵. XVIII. mendean predikazioari ematen zaion garrantzia azpimarratu gabe ez litzateke ulertuko *Euskeraren Berri Onaken* argitalpena, gramatika sortzen baita ondo hitz egiteko arauak finkatzearen. Horrenbestez, hizlari onenen prestakuntza beharrezkoa da, Jaungoikoaren hitza zabaltzeko euskaldunen artean. Hau da, azken finean, eredu klasikoaren aplikazioaren helburu behinena. Erroman latinaren elokuentziak inperioaren gloriari intelektualki eutsi zion moduan, euskararen elokuentzia dotoretu behar da predikazioan Jesukristoren mezua erakargarria egiteko, era horretan animen salbazioa lortzeko²⁶. Hau guztia jakinez gero esan dezakegu *Euskeraren Berri Onak* erretorika liburua baino gehiago predikaziorako gida bat dela, bere helburua euskaraz hitz egiteko modu elegantea sortzea da, Jaungoikoaren hitza ezagutarazteko²⁷.

Konklusio gisa esan behar dugu *Euskararen Berri Onak* liburua Euskal Herrian XVIII. mendean tradizio klasikoaren transmisio mota bat adierazten duela, Elizari dagokiona, hain zuzen. Dakigunez, elizgizonen artean kultura klasikoaren transmisioa askotan obra nagusien bidez egin beharrean, *exempla* eta *dictaen* katalogoen laguntzaz egiten zen. Honek autore zaharren erabilpena baldintzatzen zuen, zeren eta gehienetan esaldi latinoak kontesturik gabe ikasten baitziren, idazlearen ideiak legitimatzeko tresna hutsak izaten zirelarik. Ikuspuntu honetatik esan behar dugu tradizio klasikoa erabili baino gehiago, kultura horren ospea aprobetxatzen zela. Gisa honetan ulertu behar da latina eta euskararen artean Kardaberazek bilatzen zuen parekotasuna, azkenari jakinduria transmititzeko falta zitzaion prestijioa eman nahi zion. Dena den, ezin da ukatu ereduaren transmisioa gauzatzen zela, azken finean euskararen garapena paradigma klasikoaren bidez egin nahi du eta.

Kardaberazek latina miresten zuen euskararekin parekotasun handia aurkitzen zuelako, batez ere iraupenean. Alde praktikotik ikusita latinetik interesatzen zitzaion Erromako Historiaren garapenean frogatutako eraginkortasuna. Gainera bere aukera baldintzatuta zegoen, alde batetik bere heziketaren eraginagatik, non tradizio klasikoaren pisua handia baitzen; eta bestetik, latina Elizaren hizkuntza zelako. Azken arrazoi hau erabakiorra izango da, Kardaberazek eredu klasikoa apaiza izaeratik erabili baitzuen. Jaungoikoaren ondrarako euskaraz egindako predikazioari eman beharreko bultzadak ondo hitzegiteko arauen beharra sortu

23 *Ibid.*, p. 57.

24 *Ibid.*, p. 59. J. GOIKOETXEA, “Kardaberaz, euskal gizona eta euskal apostu”, *Kardaberaz aitari...*, pp. 47-48.

25 *Ibid.*, p. 72.

26 *Ibid.*, p. 112.

27 *Ibid.*, pp. 119-120. S. ONAINDIA, “Eleiz gizonak euskal literaturan”, *Kardaberaz aitari...*, pp. 98-111; J.I. TELLECHEA IDIGORAS, “La Iglesia en el País Vasco en los siglos XVI-XVIII”, *Congreso de Historia de Euskal Herria*, T. III, Bilbao 1988, pp. 383-394.

zuen eta honekin batera Gramatika baten egitasmoa. Horretarako, Elizak erabiltzen zuen eredu nagusia onartu zuen, tradizio klasikoarena, latinarena zehazkiago. Kardaberazek eredu klasikoa erabiltzen du euskara kultura eta fedea transmititzeko tresna egokia bihurtzeko. Euskarak ondo hitz egiteko arauen beharra dauka, kristau fedearen zabalkunderako. Arau hauen bildumak Gramatika bat osatu behar zuen, zeina eredu klasikoari jarraituz egingo baitzen. Modu honetan tradizio klasikoaren transmisioa bermatzen da. Bukatzeko, esan dezakegu Elizak, predikazioaren inguruan sortu zen kezkarri esker, tradizio klasikoaren zabalpenari lagundu ziola Euskal Herrian.